

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK —BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN ETA HEZKUNTZA SAILAREN BIDEZ— ETA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK ELKARREKIN ADOSTUA, ESPETXEETAN UNIBERTSITATE-IRAKASKUNTZEN PROGRAMA GARATZEKO.

HAUEK BILDU DIRA:

ALDE BATETIK,

Nerea Melgosa Vega andrea, zeina Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua baita, lehendakariaren otsailaren 13ko 6/2023 Dekretuaren bidez egindako izendapenaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa esku hartzen du, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 13/1981 Legearen 26.7 artikuluan eta lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 13. artikuluan emandako eskumenak direla bide (18/2020 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu).

Jokin Bildarratz Sorron jauna, zeina Hezkuntzako sailburua baita, lehendakariaren irailaren 7ko 28/2020 Dekretuaren bidez egindako izendapenaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa esku hartzen du, Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 26.7 artikuluan eta lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 10. artikuluan emandako eskumenak direla bide (18/2020 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu).

BESTETIK,

Eva Ferreira García andrea, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, haren izenean ordezkari gisa esku hartzen du (aurrerantzean, «UPV/EHU» edo unibertsitatea), 2021eko urtarrilaren 19ko 10/2021 Dekretuaren arabera (2021eko urtarrilaren 25eko EHAA, 17. zk.) eman zaizkion eskumenak direla bide.

Alderdiek, nor bere aldea ordezkatzuz, hitzartzeko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta, hala, hitzarmen hau formalizatzen dute.

HAU ADIERAZTEN DUTE:

LEHENENGOA. Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua ezartzen duenez, «zigor askatasun-gabetzaileek eta segurtasun-neurriek berreztea eta gizartean birsartzea dute helburu (...) Norbaiti espetxealdi-zigorra ezarri bazaio eta hori betetzen ari bada, kapitulu honetako oinarrizko eskubideak izango ditu; ez, ordea, beren-beregi mugatuta dituenak, kondena-epaiaren edukia, zigorraren esangura eta espetxe-legea kontuan hartuta», eta ondorioztatzen du, nolana ere, eskubidea izango duela «kultura lortzeko eta bere nortasuna oso-osorik garatzeko».

BIGARRENA. Kontuan hartuta Konstituzioaren arabera berreziketa eta gizarteratzea direla askatasunaz gabetzeko zigorren helburu nagusiak, Administrazioak egoki diren baliabideak jarri behar ditu presoen eskura, haien garapen pertsonala hobetzeko eta, horrela, ezarri zaien zigorra bete ondoren errazago gizarteratzeko. Ildo horretan, Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoaren 56.2 artikulua, ekainaren 30eko 6/2003 Lege Organikoan emandako idazketaren arabera, ezartzen du ezen «presoak unibertsitate-hezkuntzaren zerbitzu publikoan sar daitezzen beharrezkoa izango dela espetxe-administrazioak unibertsitate publikoekin hitzarmenak sinatzea. Hitzarmen horiek bermatuko dute ikasketa mota horri datzekion baldintzetan eta zorroztasunarekin eta kalitatearekin irakasten dela, eta, horretarako, metodologia pedagogikoa espetxe-eremuko inguruabar berezietara egokituko dute behar den guztian (...) Presoen mugikortasunari eta artikulua honetan aipatzen diren ikasketen izaera ez-presentzialari begira, aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmenak Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalarekin sinatuko dira lehentasunez».

HIRUGARRENA. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.14 eta 12. artikuluen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuko espetxe-legeria Euskadin betearazteko eskumenak baliatzea, irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoak eta otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretuaren bidez onartutako Espetxeen Erregelamenduak ezarritakoaren arabera. Autonomia Erkidegoak honako arau hauetan ezarritakoarekin bat bereganatu du benetan eskumen hori: ekainaren 29ko 474/2021 Errege Dekretua, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzekoa, eta uztailaren 6ko 169/2021 Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa.

LAUGARRENA. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkio honako egiteko eta jardun-arlo hauek: «espetxeak, bereziki haien antolaketa eta funtzionamendua, espetxe-legeria betearaztea, bere gain hartuta legeria horrek espetxe-administrazioaren organo zentraleri ematen dizkien ahalmenak», bat etorrita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 13.1.f) artikuluan xedatutakoarekin. Eta urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, Justizia Sailburuordetzari esleitzen dio espetxe-erakundeen eta -establezimenduen arloko eskumen autonomikoak gauzatzeko plangintza (11.1.f) artikulua) eta Justizia Zuzendaritzari, bere eskumen-eremuan, osasunaren, hezkuntzaren, enpleguaren eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten administrazioekin koordinatzea, eta gobernuz kanpoko erakundeen esku-hartze programak koordinatzea (14.i) artikulua).

BOSGARRENA. Hezkuntza Sailari dagozkio Autonomia Estatututik eratortzen diren ahalmenak araubide orokorreko zein araubide bereziko irakaskuntzei dagokienez, haien etapa eta maila guztiak barne, bai goi-mailako hezkuntza, bai eta bizitza osoan zehar kualifikazioak eskuratzea edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak ere; izan ere, halaxe xedatuta dago lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 10.1.a) artikuluan (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena).

Halaber, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzari esleitzen dio unibertsitateen arloko eskumen autonomikoak planifikatzeko ahalmena, arloko eragileekin batera unibertsitate-politika diseinatzeko zereginaren bidez (20.1.a) artikulua), eta Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzari, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezartzeko edo kentzeko baimenak planteatzea (21.1.b) artikulua).

SEIGARRENA. EHU zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzuan ari da, eta autonomia du, bai eta izaera eta gaitasun juridiko eta ondare propio nahikoak ere, bere eskumenen eremuan, ezinbesteko kalitate- eta bikaintasun-konpromisoarekin, goi-mailako irakaskuntza-zerbitzua eskaintzeko irakaskuntzaren, ikerketaren, azterketaren eta kultura- eta unibertsitate-proiektzioaren, kudeaketa-prozesuen eta bere jarduna oinarritzen duten zerbitzuen bitartez. Era berean, EHUK Presondegietako Ikasleen Harrerako Zerbitzua (SACP) du, 2005. urteko martxoan sortua, espesxeetan dauden eta EHUn goi-mailako ikasketak egiten hasi nahi duten edo hasitako ikasketak jarraitu nahi dituzten ikasleei laguntza eskaintzeko helburuarekin. Sortu zenetik, SACP Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetzaren eta, zehatzago, Ikasleen Zuzendaritzaren mende dago. Zerbitzu hori sortzeko, kontuan hartu zen Presondegietan diren Pertsonen buruzko EHUren protokoloa. Protokolo hori, hain zuzen, aho batez onartu zuen Gobernu Kontseiluak, 2004ko urriaren 28an. Ondoren, II. ERANSKIN moduan argitaratu zen Lehen eta Bigarren Zikloko Irakaskuntzarako Kudeaketa Araudian; hain justu, 2005eko irailaren 16ko EHAAn (177. zenbakia).

ZAZPIGARRENA. Bai Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta Hezkuntza Sailak, bai EHUK badakite zeinen garrantzitsua den autonomia-erkidegoko espesxeetan (Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako zentroetan) dauden presoen prestakuntza- eta kultura-maila handitzea eta horretarako unibertsitate-ikasketak egiteko aukera ematea. Era berean, hala Eusko Jaurlaritzak nola EHUK ezagutzen dituzte EHUren hiru lurraldeetako eskaintza akademikoak bultzatutako unibertsitate-irakaskuntzaren eredia helburu horretarako erabiltzeak dituen abantaila bereziak, eta, beraz, adierazten dute prest daudela lankidetzaren estuan aritzeko, hitzarmen honetan zehaztutako baldintzen arabera.

ZORTZIGARRENA. Hitzarmen hau EHUren aldeko dirulaguntza izendunen bidez finantzatuko da, ekitaldi bakoitzerako onartuko diren Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrean xedatutakoaren arabera.

Horregatik guztiatik, hitzarmen honetako klausulei dagokienez, bi erakundeek hitzarmen hau sinatzeko interesa dute. Honako hauek arautuko dute:

KLAUSULAK:

LEHENENGOA. Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da, alde batetik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren zein Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta EHUren arteko lankidetzaren antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko espesxeetako barneratuek matrikula egin ahal izan dezaten Presondegietan dauden pertsonen buruzko EHUren protokoloan jasotzen diren graduako eta graduondoko titulazio ofizialetan (titulazioen zerrenda ikasturte bakoitzean eguneratzen da). Protokolo hori 2004ko urriaren 28an onartu zuen EHUko

Gobernu Kontseiluak (2005-09-16ko EHAA, 177. zk.), eta 2013ko uztailaren 18an eguneratu zen (2013-12-11ko EHAA, 235. zk.). Bestetik, hitzarmenaren xedea da ekitaldi bakoitzean EHUri emango zaizkion dirulaguntza izendunak bideratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA. Aldeen betebeharrak.

Helburu horiek lortzeko, aldeek konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. EHUK honako jarduera hauek garatzeko konpromisoa hartzen du:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko espesietan barneratutako ikasleen matrikula-eskaerak kudeatuko ditu, Presondegietan dauden pertsonen buruzko EHUren protokolo eranskinean jasotako gradu eta graduondoko ikasketak ofizialak egin ahal izateko. Sartzeko betekizunak eta matrikula-baldintzak ikasturte bakoitzean indarrean dauden gradu-, master- eta doktorego-ikasketak kudeatzeko araudietan eta Presondegietan dauden pertsonen buruzko EHUren protokoloan jasotakoak izango dira.

b) Ikasleen unibertsitateko beka eta laguntzak zabaltzen eta kudeatzen lagunduko du.

c) Berriaz zainduko du EHUK izendatutako langileek konfidentzialtasuna gordetzen dutela datu pertsonalei buruz, baita haien zereginetan ezagut ditzaketen informazioei eta dokumentuei buruz ere, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko indarrean dagoen araudia zorrotz betez.

d) Espesietan barneratutako unibertsitate-ikasleen ikasketa- eta/edo administrazio-gaien kudeaketan, honako jarduketak hauek egin beharko dira:

- Postaz edo bitarteko telematikoen bidez informazioa eta aholkularitza ematea, gai akademikoei, titulazio-eskaintzari, araudiari, protokoloari eta abarri buruz.
- Ikasleen eta kasuan kasuko unibertsitate-sailaren arteko bitartekaritza, kontsulta akademikoak ebazteko koordinatzailearen bitartez.
- Ikasleentzako prestakuntza- eta informazio-materialak prestatzea.
- Ikasmateriala (programak, artikuluak, liburuak, etab.) bidaltzea edo EHUren hezkuntza-plataformako ikasgela birtualetan eskuragarri jartzea.
- Azterketak kudeatzea. Jarraipen Batzorde Mistoak onartuko du egutegiaren proposamena.
- Emaizak jakinaraztea.

2. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Hezkuntza Sailarekin koordinatuta, konpromiso hauek hartzen ditu:

- EHUren eta espesie bakoitzaren arteko bitartekaritza-lana egingo du; horretarako, bere egituraren barruan, eginkizun horretaz arduratuko den organoa zehaztuko du.

- Irakaskuntzarekin lotutako zereginak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak emango dizkie espesieei; bereziki, egoki iritziz gero, informatika-gela bat, ikasten ari diren ikasgaien ikasgela birtualetara sartzeko behar den teknologia izango duena.

- Laguntza emango die hitzarmen honetan esleitutako funtzioaren bat betetzen duten EHUKo langileei —hala nola irakasle tutoreei edo azterketa-epaimahaietako kideei— espesietara irispidea izateko.

- Jardun-arlo horretan eskumena duen errektoreordetzak esleitutako funtzioak betetzeko EAEko espesietara sartzeko EHUKo pertsona guztien segurtasuna bermatuko du.

- Halaber zainduko du Espesie Administrazioak ezartzen dituen kontrol- eta segurtasun-arauak egokiro betetzen dituztela irakasle tutoreek eta gainerako irakasleek edo administrariak. Arau horiek direla-eta, eta alde aurretik EHUri jakinarazita, espesietarako sarbidea mugatu ahal izango die langile horiei.

Hezkuntza Sailarekin batera, espesie bakoitzean informazioa emango die barneratuei EHUren hezkuntza-eskaintzari buruz (sarbidea, graduak eta

graduondoak); halaber, berri emango du ikasketa-eskaerak jasotzearen, matrikulak kudeatzearen, dokumentazioa egiaztatzearen eta sor daitekeen edozein gorabehera artatzearen inguruzko guztiaz. Era berean, hitzarmen hau betez espetxera joaten diren EHUKo langileen lana erraztuko du.

- EHUri ordainduko dizkio Unibertsitateak emandako zerbitzuetatik eratortzen diren kostuak, —hain zuzen ere Jarraipen Batzorde Mistoan alde zehaztu eta onartzen direnak—, ikasturteari dagokion likidazioaren bidez.

3. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin koordinatuta, konpromiso hauek hartzen ditu:

- EHUKen unibertsitateko hezkuntza-zerbitzua ematearekin lotutako zerbitzuaren berezko zereginak betetzeko beharrezkoa den administrazio- eta zerbitzu-egituraren iraunkortasuna babestuko du, hitzarmen honetan jasotako zereginei dagokienez, Jarraipen Batzorde Mistoak onartu ondoren.

- EHUKo graduako eta graduondoko titulazioen eskaintza Euskal Autonomia Erkidegoko zentroetan giltzapetuta daudenen komunitateari helarazten zaiola bermatuko du.

- EHUri ordainduko dizkio Unibertsitateak emandako zerbitzuetatik eratortzen diren kostuak, —hain zuzen ere Jarraipen Batzorde Mistoan alde zehaztu eta onartzen direnak—, ikasturteari dagokion likidazioaren bidez.

HIRUGARRENA. *Finantzaketa.*

Hitzarmen honen xede diren jarduerak Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta Hezkuntza Sailak finantzatuko dituzte, hemen aurreikusitako irismen eta mugekin. Horretarako, dagozkion dirulaguntza izendunak emango dira, aurrekontu-baliabideen arabera, ekitaldi bakoitzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean horretarako xedatutakoaren esparruan.

EHUK ikasturte bakoitzean ematen dituen irakaskuntzetatik eratorritako kostu guztiak (matrikularen kudeaketa, tutoretzak eta aholkularitzak, azterketa-epaimahaien joan-etorriek eragindako gastuak, material didaktikoaren edo azterketa-materialaren balizko bidalketak, harrera-plana, udako ikastaroak eta hitzarmen honen xede den jardueraren ondoriozko beste edozein gastu) osorik ordainduko ditu Eusko Jaurlaritzak, dirulaguntza horien kargura eta muga horrekin, behin hitzarmen honetako klausulekiko egokitasuna justifikatu eta egiaztatuta, eta Jarraipen Batzorde Mistoak onartu ondoren.

EHUK, ikasturtea amaitzean eta, beranduenez, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko azaroaren 1ean, dagozkion justifikazio-dokumentazioa aurkeztuko dio Jarraipen Batzorde Mistoari. Bertan, memoria bat jasoko da, egindako gastuak eta gauzatutako jarduerak zehaztuta. Nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen gastuak ikasturte akademikorako honako zerbitzu-kategoria hauetara egokituko dira:

- Zerbitzuari laguntzeko administrazio eta zerbitzuetako langileak.
- Matrikula.
- Tutoretza- eta aholkularitza-lanak.
- Azterketetarako epaimahaiak eta materialak.
- Irakasleen eta administrazio-langileen gastuak.
- Ikasle barneratuentzako harrera-plana.
- Hitzarmenaren Jarraipen Batzorde Mistoaren oniritzia duen beste edozein jarduera.

Gastu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorretan agertzen den dirulaguntza izendunaren gehieneko zenbatekora mugatuko dira.

Finantziazioak beti izango du baldintza bat: kreditua beharrezkoa eta nahikoa izatea,

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.6 artikulua araberaz.

Jarraipen Batzorde Mistoak gastuen likidazioa onartu ondoren, adostutako gastuen likidazioa justifikatzeko txosten bat egingo du EHUK, eta Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartuko du gastu horiek egin diren aurrekontuaren kargura ordaintzeko.

LAUGARRENA. Kontratu-izaerako harremanik ez sortzea.

Hitzarmen honetatik ez da inolako kontratu-harremanik sortuko EHUK izendatutako pertsonen eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren artean, ez arlo zibilean, ez merkataritzakoan, ez laboralean ezta funtzionario-tza- edo estatutu-arloetan ere.

BOSGARRENA. Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babesa.

1. Alderdiak konpromisoa hartzen dute honako arau hauetan xedatutakoa betetzeko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez; Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta arauok garatzeko ematen diren xedapenak.

Ondore horietarako, hitzarmena sinatzen duten alderdiak tratamendu propioen erantzuleak izango dira, tratamendu horien bidez hitzarmenaren xede diren espesietako barneratuengandik jasotako datu pertsonalak jorratzen diren heinean. Erakunde batek beste aldearen tratamenduari buruzko datuak eskuratzeko, tratamendu-eragilea izan behar du, eta azterlanak egiteko helburuarekin baino ez dira erabiliko datuok. Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako edo jakinaraziko, salbu eta legitimatutako tratamendu-eragileei lagatzen zaizkienean edo beste organismo edo administrazio publiko batzuei lagatzen zaizkienean, lege aurreikusitakoaren arabera.

2. Hitzarmen honen xedea betetzeko beharrezkoak diren datu pertsonalei dagokienez, tratamenduaren arduradun izango dira Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Euskal Herriko Unibertsitatea, interesdunen baimenaren bidez datu pertsonalak tratatzeko legitimatuta baitaude ondoren adierazten diren helburuetarako, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1 a) artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

3. Tratamenduaren xede diren datuen helburua barneratuen irakaskuntza kudeatzea izango da (edo tratamendu-erregistroan emandako helburua), eta honako kategoria hauetan sailkatuko dira: barneratuen datu pertsonalak (identifikazio-datuak).

4. Tratamenduaren arduradunek Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 13. eta 14. artikuluetan ezarritako informazio-betebeharrak beteko dituzte interesdunen aurrean, haiei buruz jasotako datu pertsonalei dagokienez.

5. Alderdi sinatzaileek beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak ezarri behar dituzte, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea edota baimenik gabe erabiltzea edo eskuratzeko eragozteko.

6. Hitzarmena sinatzen duten alderdiak ez dute inolako erantzukizunik izango, baldin eta beste edozein alderdik ez baditu aurreko betebeharrak betetzen. Erakunde batek bere gain hartutako betebeharrak urratuz gero, hark izango du arau-hausteen erantzukizuna.

SEIGARRENA. Jarraipen Batzorde Misto.

Hitzarmen honen jarraipena batzorde misto batean egingo da. Batzorde horrek sei kide izango ditu: bi Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren ordezkari izango dira, bi Hezkuntza Sailaren ordezkari, eta bi EHUKen ordezkari.

Batzorde horren egitekoa izango da hitzarmen honetako klausulak interpretatzea eta betearaztea, eta klausula horiek behar bezala betetzen direla ziurtatzea; besteak beste:

- a) Hitzarmen honen betearazpena bultzatzea, koordinatzea eta ebaluatzea.
- b) Proposamenak egitea organo eskudunei ikasle barneratuek matrikula-prezio publikoen ordainketan eta, hala badagokio, hitzarmenaren xedetik eratorritako gainerako jardueretan onurak lortzeko bete beharreko baldintzei buruz.
- c) Irakaskuntza horien garapena zaintzea, ikasturteko emaitzak ebaluatuz eta espetxe bakoitzean emandako unibertsitate-irakaskuntza hobeto egokitzeko hobekuntzak sartuz.
- d) Egindako gastuen eta gauzatutako jardueren likidazioa eta justifikazioa onartzea, bai eta ikasturte bakoitzerako aurrekontu-proiektua ere.
- e) Lankidetzeta-sistema honetatik sortzen diren gai guztien berri izan eta horiek ebaztea.

Bilerak urtero egingo dira, baina hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek hala eskatzen dutenean ere egin ahal izango dira, ezohiko bilera modura. Batzorde honek, bere funtzionamenduan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluko 3. atalean kide anitzeko organoentzat xedatutakoa bete beharko du, gehiengoaren araubideari dagokionez izan ezik, hiru alderdien akordioan oinarrituko baita beti. Horregatik, Batzordearen erabakiak adostasunez hartuko dira, eta kasu guztietan, baliozkoak izan daitezten, aho batez hartu beharko dituzte batzordekideek.

ZAZPIGARRENA. *Aplikatzekoa den legedia eta jurisdikzio eskuduna.*

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta espresuki baztertuta dago Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik, lege horren 4. artikuluan eta harekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena interpretatzetik eta betetzetik sortutako auzigaiak administrazioarekiko auzien arloko epaitegi eta auzitegietara igorriko dira, baldin eta Jarraipen Batzorde Mistoak edo hitzarmena sinatu duten agintariek ebatzi ezin izan badituzte, bat etorrita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

ZORTZIGARRENA. *Indarraldia eta indarrean sartzea.*

Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, eta berau sinatzen den egunean jarriko da indarrean. 2025-2026 ikasturtea amaitu baino lehen berritu ahal izango da, beste hitzarmen bat sinatuz, lau urteko eperako, salbu eta alderdi sinatzaileetako batek salatzen badu; izan ere, alderdi sinatzaileek ahalmena izango dute hitzarmena edozein unetan alde bakarretik deuseztatzeko eta, horretarako, espresuki eta modu frogagarrian jakinarazi beharko diote beste aldeari, bi hilabete lehenago.

Hitzarmena luzatu ahal izateko, behar besteko aurrekontu-baliabideak beharko dira beti.

BEDERATZIGARRENA. *Hitzarmena azkentzea.*

1. Hitzarmen hau azkentzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan ezarritakoak izango dira.
2. Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiaren bat dagoenean, une horretan abian dauden ekintzak jarraitu eta horiek amaitzea erabaki ahal izango dute alderdiek, Jarraipen Batzorde Mistoaren proposamenez; hala erabakiz gero, ekintza horiek amaitzeko epe luzaezina ezarriko dute, dagokion ikasturtea amaitu arteko denboran betiere.

HAMARGARRENA. *Betebeharrak ez betetzea eta hitzarmena aldatzea.*

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.e) eta 51. artikuluen arabera, sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik suntsiarazten bada hitzarmena, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio hitzarmena bete ez duen alderdiari, hogeita hamar egun naturaleko epean bete ditzan

bete gabekotzat jotzen diren betebehar edo konpromisoak. Errekerimendu hori Jarraipen Batzorde Mistoari jakinaraziko zaio.

Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak beste alderdiari jakinaraziko dio badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da; halaber, kalte-ordaina ekar dezake, kalterik sortuz gero.

Era berean, hitzarmen honen edukia aldatzeko, sinatzaileen ahobatezko adostasuna beharko da, eta dagokion eranskin aldatzailearen bidez formalizatuko da hitzarmenaren indarraldia amaitu aurretik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 g) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, hitzarmen honen jatorrizko bi ale — bi-biak balio berekoak— sinatzen dituzte. Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 21a.

HEZKUNTZA SAILAREN IZENEAN,

**BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN
IZENEAN,**



Jokin Bildarratz Sorron jauna



Nerea Melgosa Vega andrea

EHU-REN IZENEAN,



Eva Ferreira García andrea